

**HIRIGINTZA FITXA. - N-634. ERREPIDEA**  
LURZORU HIRITARREZINA/ LURZORU HIRITARRA**1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.**

N-634 errepide nazionala da, sare gorrian –lehentasuneko– txertatua, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauak hari esleitu dion funtzionaltasunaren arabera.

**1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.**

Ez da egin.

**1.2. UDALAZ GAINDIKO PLANEAMENDUA.**

Lurraldearen Antolamendurako Zuzentarauak.  
Errepideen Plan Orokorra.  
Gipuzkoako Errepideen Lurralde Plan Sektoriala.

**1.3. HIRI EGITURA.**

Lurraldearen egitura organikoa eratzen duen elementua da.

1.3. ESPARRUAREN AZALERA. 135.166 m<sup>2</sup>

**2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**

- 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarrezina.  
2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Komunikazioen sistema orokorra. Bide sareak. N-634 errepidea (11. artikulua: E.1.1.).  
2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : N-634 errepidearen jabari publikoko zona zedarritua geratu zen Foru Aldundiak Errepide eta Bideen Inbentarioa egin zuenean, eta Hiri Antolaketako Arauen dokumentuan jasotakoa da.

**3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.**

Orientabide moduan eta izaera loteslerik gabe, Diagnostikoa eta Aurrerapena aztertu ondoren eta asmoak agertze aldera, N-634 errepidean zenbait jarduketa proposatuko dira:

- Debako hegoaldeko saihsbidea. Trazatua: A-8 autobidearen zerbitzugunetik Hartzabalgo meandroetara. Xedea: Debako hiri alderdian iragaite zirkulazioa saihestea. Udaleko eta udalaz gaindiko lurraldea egituratzea, Mutriku eta Ondarroa A-8 autobideko lotunera hurbilduz. Deban hiri bilbe berritua sortzea.
- Biribilgunea A-8 autobidera sartzeko.  
Xedea: Itziarko industrialderako sarbidearen arazoa konpontzea.
- Elorriagarako lotura.  
Xedea: sarbideko gurutzagunean segurtasuna bermatzea.
- Mutrikuko saihsbidearen eta N-634 errepidearen arteko lotura Sasiolan.  
Xedea: Mutriku eta Ondarroa Mendaroko ospitalera gerturatzea.

**3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.**

Hasiera batean, Errepideen Foru Arauaren bi zonak ezarriko dira:

- Bideko jabari publikoko zona (8. artikulua).
- Babes zona: 50 metro (53. artikulua).

### 3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Errepideen Foru Arauaren (17/1994 FA) arabera.

### 3.3. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

**Probetxamendua.** Errepideen Foru Arauaren (17/1994 FA) arabera.

**Eraikuntza.** Errepideen Foru Arauaren (17/1994 FA) arabera.

**Jabaria.** Publikoa (Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren departamentua).

**Erabilera orokorra.** Komunikazioak.

#### Erabilera baimenduak.

Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren babes zorpeneko eremuan, Kosta Legearen 24 eta 25. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

- Herritar guztien zirkulazio libreko jabari publikoko zona.

Zirkulazio edo iragatearekin bateragarria den beste edozein erabilera, esparruaren segurtasuna eta erosotasuna murrizten ez baditu (50. artikulua).

- Babes zona: Bide segurtasunarekin eta errepidea nahiz bidea mantentzearekin bateragarriak diren eraikuntzak eta erabilera.

Zerbitzuguneak eta hornitegiak. Mugak: 58. artikulua.

Kartelak, horma-irudiak eta idazkunak. Mugak: 59. artikulua.

Itxiturak. Mugak: 60. artikulua.

Lurpeko hoderia. Mugak: 61. artikulua.

Negutegiak. Mugak: 64. artikulua.

Lurketak. Mugak: 65. artikulua.

Baso sailak. Mugak: 66. artikulua.

Airetiko lineak. Mugak: 68. artikulua.

Udal bideak eta pasealekuak. Mugak: 69. artikulua.

#### Erabilera debekatuak:

- Jabari publikoko zona: gainerakoak.

- Jabari publikoko zona: gainerakoak.

### 3.4. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Erakunde eskudunaren arabera.

### 3.5. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Erakunde eskudunaren arabera.

### 3.6. ESKU-HARTZE PROPOSAMENAK.

Esku-hartzea asmoak agertzeko modu gisa ulertu behar da, Diagnostikoa eta Aurrerapena aztertu ondoren; proposamenak, duten interesagatik, orientabide moduan aurkeztu dira, izaera loteslerik gabe, eskuduna Bide Azpiegituretako departamentua baita.

- Debako hegoaldeko saihebidia.
- Biribilgunea A-8 autobidera sartzeko, N-634 errepidean.
- Elorriagarako lotura.
- Mutrikuko saihebidearen eta N-634 errepidearen arteko lotura Sasiolan.